


## Ipar Atlantikoko plastikoeak Artikoan amaitzen dute

Plastikoen kontzentrazioa (g/km<sup>2</sup>)

- 0 - 5
- 5 - 20
- 20 - 60
- 60 - 100
- 100 - 500



Laginak jaso dituzten puntuak, zirkulazio termohialino eta plastikoen kontzentrazioa erakusten dituen irudia. ARG.: ANDRÉS CÓZAR.

Europako eta Estatu Batuetako Atlantikoko kostetan itsasora botatzen diren plastikoeak Artikoan amaitzen dutela erakutsi du egin berri dute ikerketa batek; bereziki, Barents eta Groenlandiako itsasoetan.

Cadizko Unibertsitateko ikertzaileek zuzendu dute ikerketa, eta tartean AZTIkoak ere aritu dira. [Sciences Advances aldizkarian argitaratu dute lana](#), eta emaitza ezustekoa izan da. Hain zuzen ere, zientzialariek ondo ezagutzen dituzte [plastikoen pilaketak](#) ozeano subtropikaletan: lasterren biraketetan, kostan botatako plastikoeak biltzen dira, eta, denborarekin, desegiten eta hondoratzen joaten dira. Artikoan, ordea, ez zuten uste halakorik egongo zenik, inguruko kostetan ez baitago populaziorik. Alabaina, orain egindako ikerketan frogatu dute, Ozeano Artikoaren azalaren % 37 garbi dagoen arren, badaudela poluitutako eremuak. Hala, Barents eta Groenlandiako iparraldean eta ekialdean neurtu dituzte plastiko-kontzentrazio handienak.

Ikusi dute Ipar Atlantikoko kostatik iristen direla hara; hau da, Estatu Batuetako ekialdetik eta Europako Atlantikoko kostatik. Azaldu dutenez, zirkulazio termohialinoak tropikoetako ur beroa eramaten du iparraldera, eta harekin batera garraiatzen du plastikoa. Artikora iritsitakoan, ura hoztu eta hondoratu egiten da, eta berriro hasten du tropikorako bidea. Plastikoa, berriz, ur azalean geratzen da. Ikertzaileen ustez, Artikoko eremu horien honoia plastikoen hobi bilakatzen ari da. ●

## Albo-ondoriorik gabeko analgesiko opioidea garatu dute

Berlineko zientzialari batzuek mina tratatzeko botika eraginkorra eta albo-ondoriorik gabea sintetizatzea lortu dute. Analgesiko berria opioidea da, baina ez ditu eragiten morfina eta beste opioideek izaten dituzten albo-ondorioak: goragalea, apnea, ultzerak, hemorragiak, menpekotasuna eta abar.

Morfina gorputz osoan eragiten du; NFEPP izeneko analgesiko bakarrik, ordea, hantura-guneetan bakarrik. Izan ere, baldintza azidoetan lotzen zaie zeluletako hartzaileei, eta ehunetako ohiko pHa neutroa izanik, hantura dagoen tokietan bakarrik egoten da halako azidotasuna.



Animaliekin egindako entsegu klinikoetan ikusi dute ehun osasuntsuek ez dutela erreakzionatzen analgesikoaren aurrean. Ondorioz, ez du gorputz osoa loguratzen, ezta menpekotasunik sortzen ere. *Science* aldizkariak eman du ikerketaren berri. ●

## Ceres asteroidean konposatu organiko alifatikoak hauteman dituzte

NASAREN Dawn zundak konposatu organiko alifatikoak detektatu ditu Ceres asteroidearen azalean. Aurkikuntza horrek indartu egingo luke Lurrean bizia loratzeko behar izan ziren ura eta karbonodun konposatuak kometetatik eta asteroideetatik etorriak liratekeela dioen hipotesia.

Marte eta Jupiter artean kokatuta dagoen asteroideen gerrikoko objekturik handiena da Ceres. Haren gainazala

aztertzen ari zirela, ikertzaileek absortzioa hauteman zuten materia organiko alifatikoaren zenbait osagai dagoen uhin luzeretan, ikusgai-infragorri espektrometria bidez. Ikertzaileen arabera, gainera, material organiko hori asteroidean bertan sortu zen; izan ere, kanpotik iritsia balitz, beste asteroide horrek Ceresen kontra jotzean sortutako beroak deuseztatu egingo bailitu. [Science aldizkarian argitaratu da ikerketa](#). ●



Ceres asteroidea. ARG.: NASA/JPL-CALTECH/UCLA/MPS/DLR/IDA

Albiste gehiago  
webgunean

